



ARANTZAKO UDALA

OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2024.10.11

Ordua: 16:30

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak: Inor ere ez.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. 2024ko irailaren 4ko mugaketarako udal batzordeak sinaturiko Baterako Akta Gehigarria onartzea, Arantza, Igantzi, Lesaka eta Etxalarko udalerrien arteko udal-mugaketa zuzendu eta hobetzeko Udal Batzordeak sinatua.
3. Igor Oskoz Errandoneak herri-lurrei eragiten dion katastro aldaketarako eskaera partzialki onestea.
4. UE1 urbanizazio obra jasotzeko onespena.
5. Ekaitz Bertiz Apezteari Erreka Zoko Hortan film laburra egiteko dirulaguntza emateko onespena.
6. Yala Nafarroa Palestinarekin mozioa onestea.
7. Osoko bilkuretarako deialdien maiztasun aldaketa onespena.
8. Alkate Ebazpenak.
9. Eskaerak eta galderak.



ARANTZAKO UDALA

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2024ko irailaren 6ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

2. 2024KO IRAILAREN 4KO MUGAKETARAKO UDAL BATZORDEAK SINATURIKO BATERAKO AKTA GEHIGARRIA ONARTZEA, ARANTZA, IGANTZI, LESAKA ETA ETXALARKO UDALERRIEN ARTEKO UDAL MUGAKETA ZUZENDU ETA HOBETZEKO UDAL BATZORDEAK SINATUA.

Toki Administrazioko eta Despopulazioko zuzendari nagusiaren maiatzaren 30eko 315/2024 Ebazpenaren bidez, Lesaka eta Igantzi arteko mugaketa berreskuratzeko eta geometrikoki hobetzeko lanak hastea xedatu zen.

Ekimen hori Herri-Lurren Atalak 2024ko martxoaren 11n egindako eskaera batek eragin zuen. Eskaera horren bidez "Lurralde Kohesioko Departamentuko Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiko Toki Erakundeekiko Aholkularitza Juridikoko eta Lankidetzako Zerbitzuari espediente bat irekitzeko eskatu zitzaion, Lesaka eta Igantzi udalerrien arteko mugarte lerroa berreskuratzeko eta geometrikoki hobetzeko prozedura hasteko".

Horrez gain, gehitu beharra da udal mugek kartografian hainbat iturrien artean aldeak daudela: Mapa Topografiko Nazionalarena, ondorio jurisdikzionaletarako ofiziala dena, eta Nafarroako Katastroarena, ondorio fiskaletarako ofiziala dena. Desberdintasun horiek, normalean, ez dira funtsezkoak eta batez ere pasatako mendearen hasieratik erabilitako eskala eta metodologia kartografikoen ondorio dira.

Egindako lanek konponduko dituzte desberdintasun horiek; izan ere, segurtasun gabezia juridikoa sor dezakete une jakin batean eta, nolahi ere, hobetu daitezkeen kalitate teknikoak adierazten dute. Horretarako, mugape historikoa bere iturriekin interpretatu eta errespetatzen da eta egungo euskarri kartografikoetara eramaten da koordinatu zehatzekin.

Lan tekniko horiek Nafarroako Gobernu Aholkularitza Juridikoko eta Toki Entitateekiko Lankidetzako Zerbitzuak egin ditu, bertze zerbitzu batzuekin koordinatuta (bereziki Lurralde Aberastasuna, Kartografia eta Herri Lurrak), eta tartean dauden udalen berrespena behar da, lan horiei erabateko sendotasuna emateko eta Estatuko Kartografiaren Erregistro Nagusian inskribatzeko, zeinak alderdi horiek guztiak ebaluatzen dituen. Inskripzio horrek erabateko ofizialtasuna emanen dio lerroari, baita bateratasuna ere udalean eta eskualdean onartutako lerroei.

Lerro hori zuzentzeko eta hobetzeko proposamena inplikaturako udalei jakinarazi zitzaion, eta jendarean jarri zen Nafarroako Gobernuaren Partaidetza Atarian, 2024ko ekainaren 18ko 125. NAO argitaratu ondoren, eta une horretatik aitzinera ez dira Arantzaren interesei eragiten dien alegaziorik edo aldaketarik egin.



ARANTZAKO UDALA

Udalak mugaketa akta gehigarriak sinatzeko 2024ko ekainaren 7an mugaketarako udal batzordea bat izendatu zuen.

2024ko apirilaren 29an Aholkularitza Juridikoko eta Toki Erakundeekiko Lankidetzako Zerbitzuak egin beharreko lanei eta lan horiek Arantzan duten eraginari buruzko informazio ofiziala bidali zion udalari eta aukera eman zion, udalak hala nahi izanez gero, gaia eta horren inguruan sor litekeen edozein gai aztertzeke bilera bat deitzeke.

Era berean, mugaketarako udal batzordeko ordezkariari pertsonalki eman zaie egindako lanen berri, 2024ko irailaren 5ean eta une horretan, gainera, Baterako Akta Gehigarria sinatu zen.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, legezko kide kopuruaren gehiengo osoa izanik, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Lesaka eta Igantzi udalerrien arteko udal mugaketa zuzentzeko eta hobetzeko 2024ko ekainaren 7an horretarako izendatutako udal batzordeak sinatutako 2024ko irailaren 4ko Baterako Akta Gehigarria onartzea. Nafarroako *Yanci eta Lesaka udalerrietako mugari komunak zehazteko eta udal-mugarte-lerroa ezagutzeko egindako eragiketaren* aktaren akta gehigarri bat da. Geografia eta Katastroko Institutuak egin zuen 1940ko apirilaren 25ean.

2.- Nafarroako Gobernu Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari eskatzea aitzineko erabakiaren bidez onetsitako akta Estatuko Administrazio Orokorren eta Foru Administrazioaren erregistroetan inskribatzeko izapideak egin ditzala.

3. IGOR OSCOZ ERRANDONEAK HERRI-LURREI ERAGITEN DION KATASTRO ALDAKETARAKO ESKAERA PARTZIALKI ONESTEA.

Ikusirik 2024ko urriaren 31n Jose Antonio Echarri Iribarrenek Igor Oscoz Errandonearen izenean aurkezturiko eskaera eta dokumentazioa, Arantzako Katastroan dauden hainbat lurzatiren egoera zuzentzeko, hau da, Lurralde Aberastasunaren Erregistroko oinarrizko datuak aldatzeko eskatzen du.

Ikusirik aipaturiko eskaeran xedaturiko lurzatiek herri-lurrei eragiten dienez, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren eta Katastroen Erregistroari buruzko azaroan 21eko 12/2006 Foru Legearen 25.3. artikuluan xedaturikoari jarraiki, Nafarroako Gobernu Toki Administrazioaren Herri-Lurren Atalari zegokion aldeko txostena egiteko eskatu zitzaion.

Ikusirik 2024ko abuztuaren 31ko Herri-Lurren Ataleko txostena, non aurkezturiko eskaerako 3 ondorioetatik lehenengoa onartzen duen, zeina ondorio guztietarako hemen erreproduzitzat ematen dena. Horrela bada, onartu egiten da Burnizko irazlaietatik bereizi ziren eta 2024 finkako 3457 liburukian, 38 liburuan, 165 folioan inskribatuta dauden 820 m²-ak mugatzea, baina finka



ARANTZAKO UDALA

horren jabeek mugatu beharko dituzte lursailean; izan ere, finkaren jabe diren aldetik, jabe horiek ezagutzen dituzte beren lursailaren mugak, eta lursail horren gainean egin dute jabari efektibo eta jarraitua urte hauetan guztietan. Aurkeztutako txostenean adierazten denez, 1014 erregistro-finkaren iparraldean dago. Irazlaren transakzio hitzarmenari erantsi zitzaion finka hori, eta Arantzako herri lurra jabetza izatera igaro zen.

Ikusirik Nafarroako Lurralde Aberastasunaren eta Katastroen Erregistroari buruzko azaroan 21eko 12/2006 Foru Legearen 25. artikuluko 1.c) eta 5. apartatuetan xedaturikoa, non azaltzen duen:

"1. Ondasun higiezinaren oinarrizko datuak, foru lege honen 3.2 artikulua aipatzen dituenak, Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatuko dira, honako prozedura hauen bitartez: (...) c) Aldaketa egitekoa, Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatutako lurzati edo higiezin-unitate jakin baten ezagutza fisikoaren mugaketa grafikoa aldatzeko eskariaren ondorioz, foru lege honen 31. artikuluan ezarritakoaren arabera.

(...)

5. Lurralde Aberastasunaren Erregistroko oinarrizko datuen edozein aldaketa, partikularrek aitortu edo eskatua bada eta daqoen informazioan aldaketa grafikoa egitea badakar, unean uneko lurzatiaren planoan edo irudikapen grafikoa aldatzeko egiten uzten duten formatuak erabiliz egin beharko da.

Horretarako, partikularrek behar den dokumentazioa aurkeztuko dute, ukitutako lurzatiei edo higiezin-unitatei buruz ateratzen den irudikapen grafikoa eskuragarri dauden formatuetara modu argi eta arrazoizkoan eraman ahal izateko; udalek formalizatu egin beharko dute dokumentazio hori, eta zilegi izanen dute irudikapenaren ondoriozko kostuak titularrei edo eskatzaileei egozte."

Ikusirik aipaturiko 12/2006 Foru Legean lurzatiaren eta higiezin unitateen muga eta azaleraren aldaketa grafiko esanguratsua egiteko prozedurari buruz 31. artikuluan xedaturikoa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2.p) artikulua emandako eskumenak baliatuz.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, legezko kide kopuruaren gehiengo osoa izanik, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Igor Oskoz Errandoneak herri-lurrei eragiten dion katastro aldaketarako eskaera partzialki onestea. Horrela bada, aipaturiko 3 ondorioetatik lehenengoa onartzen da.

2.- Eskatzaileari errekeritzea, Burnizko irazlarietatik bereizi ziren eta 2024 finkako 3457 liburukian, 38 liburuan, 165 folioan inskribatuta dauden 820 m²-ak mugatzea; izan ere, finkaren jabe diren aldetik, jabe horiek ezagutzen dituzte beren lursailaren mugak, eta lursail horren gainean egin dute jabari efektibo eta jarraitua urte hauetan guztietan. Horretarako irudikapen grafikoa eskuragarri dauden formatuetan modu argi eta arrazoizkoan aurkeztu beharko du.

3.-Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea, Herri-lurren Ataleko txostenarekin batera, dagozkion errekurtsioen berri emanez, bere ezaguera eta ondorioetarako.



ARANTZAKO UDALA

4. UE1 URBANIZAZIO OBRA JASOTZEKO ONESPENA.

Idazkariak azaldu du abenduaren 20ko 155/2022 Alkate Ebazpen bidez Xabier eta Joseba Zugarramurdi Alzuri senideei 5. poligonoko 966. lurzatian bi familientzako etxebizitza eta 1. Exekuzio Unitateko (UE1) urbanizazioa egiteko obra baimena eman zitzaila.

Horrela bada, 2024ko maiatzaren 14an, Ander Rodriguez Kortak aipaturiko sustatzaileen eta Lucio Zugarramurdi Tabernaren izenean urbanizazio obraren amaierako dokumentazioa aurkeztu zuen udalean.

2024ko ekainaren 25ean udal arkitektoak txostena egin zuen eta honako honen emaitza hau izan zen:

- Planoetan ikusi daitekeen moduan, saneamenduko hodiak (bai euri urena eta bai fekalena) jada existitzen ziren putzuetara ailegatu baino lehen "codo" delako bat egiten dute. Planoan jasotzen denaren arabera "codo" delako horrek hodian 45° -ko norantza aldaketa eragiten du baina planoan irudikatzen den angelua 45° baino txikiagoa da. Norantzko aldaketa horren kokalekua gaizki irudikatua dago. Aurkeztutako planoan hormigoizko bidetik kanpo (belar zatian) geratzen dela irudikatzen da baina, ikusi daitezenez, hormigoia azpian geratuko litzateke.
- Euri uren sarea eraikuntzetatik hurbilen kokatzen dena da eta ez fekalena aurkeztutako planoan adierazten den moduan. Hori ere zuzendu beharko litzateke eta hormigoizko bidearen ertzean kokatu diren sumideroetatik ailegatu diren adarrak ere irudikatu beharko lirateke. Era berean, fekalen azken arketara ailegatu baino lehen, hodiak bertze norabide aldaketa bat egiten du.

Halaber, 2024ko irailaren 18an sustatzaileek proposamen aurkeztu zuten non berariaz adierazten duten datozen 20 urteetan UE1 unitateko saneamenduan sortu daitezkeen arazoek konponketa beraien gain hartuko dutela.

Zentzu horretan, idazkariak berariaz ohartarazi du Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 160. artikuluan xedaturikoaren arabera, urbanizazio obrak ongi baldin badaude eta aurreikusitako aginduen arabera egin badira, jasotze akta egingen dela. Halaber, kasu honetan urbanizazio obra ez da aurreikusitakoaren arabera egin eta hori horrela izanik, aipaturiko artikulua arabera, ikusitako akats eta gabeziak zehazki adierazi beharko dira. Era berean, adierazi du urbanizazio obraren jasotze akta egin aitzinetik antzemandako akatsak zuzentzeko dagozkion neurriak hartu beharko liratekeela.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- UE 1 urbanizazioa egiteko obraren jasotze akta sinatzeko onespena ematea, betiere antzemandako akatsak eta sustatzaileek egindako proposamena bertan xedatzen badira, hau da,



ARANTZAKO UDALA

20 urteetan UE1 unitateko saneamenduan sortu daitezkeen arazoek konponketa aipaturiko eremuko jabeen kontura izanen da.

2.- Jasotze akta sinatzean, bi familientzako etxebizitza egin bitartean UE1eko urbanizazio obra exekutatu zela bermatzeko paratutako 4.000,00 €-ko bermea itzultzea.

3.- Akordio hau sustatzaileei jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

5. EKAITZ BERTIZ APEZETXEARI *ERREKA ZOKO HORTAN* FILM LABURRA EGITEKO DIRULAGUNTZA EMATEKO ONESPENA.

Idazkariak 2024ko urriaren 7an Ekaitz Bertiz Apezetxeak *Erreka Zoko Hortan* film laburra egiteko dirulaguntza eskaera azaldu du. Era berean, honek aurkezturiko bertzelako dirulaguntza (publiko zein pribatuak) jaso izanaren inguruko erantzukizunpeko adierazpena eta sarrera-gastuen balantzea azaldu du, non ikus-entzunezko hau egiteak momentuz 979,12 €-ko defizita izanen duela azaltzen den.

Horrela bada, udalbatzak gaiaren inguruan eztabaidatu du eta, ondorioztatu du, film laburraren kontestua eta euskal kulturarekin duen lotura ikusirik, eta ez hori bakarrik, eskatzailea inguruko zinemagintzako ikasle gaztea izanik eta egindako lanek kultura aberastasuna handitzen dutenez, honako ekimen hau diruz lagundu beharko luketela.

Zentzu horretan, idazkariak adierazi du Dirulaguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2.a) eta 28. artikuluetan xedaturikoari jarraiki, zuzeneko dirulaguntza emateko Arantzako Udaleko 2024ko aurrekontuan horretarako partida bat egon beharko litzatekeela, baina ez dago horrelako partidarik. Era berean, ohartarazi du dirulaguntza zuzenean ematea hitzarmen baten arautu beharko litzatekeela. Aldiz, 2024ko aurrekontuko 1 9250 4820003 PARTIKULARREI EDO ERAKUNDEEI LAGUNTZA partidan oraindik erabili gabe dauden 1.000,00 euroko kreditua dagoela azaldu du.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Ekaitz Bertiz Apezetxeari *Erreka Zoko Hortan* film laburra egiteko 250,00 €-ko dirulaguntza ematea.

2.- Eskatzaileari adieraztea, aipaturiko dirulaguntza 2024ko Eguberrietan Arantzako emanaldi bat egiteko baldintzatua dagoela. Horretarako kultura arloko zinegotziarekin solastu beharko du, emanaldiaren nondik norakoak adosteko.

3.- Eskatzaileari azaltzea film laburraren inguruan eginen diren komunikazioi, iragarki, etab., euskaraz izan beharko direla.

4.- Akordio hau Ekaitz Bertiz Apezetxeari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.



ARANTZAKO UDALA

6. YALA NAFARROA PALESTINAREKIN MOZIOA ONESTEA.

YALA NAFARROA PALESTINAREKIN

Kontuan hartuta:

- 76 urteko okupazioa, palestinarren lurren eta baliabideen lapurreta, eta hamarkadak dira Israelek apartheid sistema ezarri zuela;

- etengabeko genozidioa prozesu historiko batean txertatzen da, Palestinaren legez kanpoko okupazioa eta bere lurraldearen murrizketa gero eta handiagoa oinarri hartuta. Horri esker, politika edo continuum batzuk garatu ahal izan dira apartheid, segregazio, bantustanizazio estrategia beraren barruan, zigor kolektiboak etengabe ezartzeko eta herri, etnizidio eta genozidio baten deuseztapena gauzatzeko, oraingoan mundu guztiaren bistan, Israeli bere planarekin jarraitzea eragotzi gabe;

- Israelek ez ditu aintzat hartzen eta ez ditu betetzen sistematikoki Nazio Batuen Ebazpenak, bai eta Nazioarteko Justizia Gorteak 2024ko maiatzaren 24an emandako agindua ere, zeinaren arabera **«Israeli agintzen baitio Gazako eraso berehala gelditzeko eta Gazako sarrera guztiak irekita edukitzeko eta ikerketa-batzorde bati sartzan uzteko»;**

- Nazioarteko Justizia Gortearen, udal honen neurri hauek betetzen direla ziurtatzeko estatu sinatzaile guztien betebeharra:

— Herri palestinarri elkartasuna adierazten dio eta bere eskubideen aitortza babesten du.

— Espainiako Gobernuari eskatzen dio:

1. **Gazako zerrendan berehalako su-eten iraunkorra** eska dezala nazioarteko instantzia diplomatiko guztietan.

2. NBEk **korridore humanitarioak irekitzea bultza dezala, elikagaiak, sendagaiak eta bizitza duina izateko behar den guztia Gazan sar dadin**. Israelek sarrera legez kanpo blokeatzen jarraitzen du gaur egun, nazioarteko legezketasuna argi eta garbi urratuta.

3. **Israeli armak eta petrolio berehala enbargatzea**, Gazako populazio zibilaren aurka erabiltzea saihesteko, NBEren Lurralde Palestinar Okupatuaren Errelatore Bereziak EBri eskatutakoarekin bat etorritz. Israeli armak erostea eta saltzea eten dezala, genozidioak, okupazioak eta apartheidak irauten duten bitartean, herrialde honek palestinarren aurka egindako ankerkeriak ikusita eta Europar Batasunari eska diezaiola Israeli armen eta teknologia militarren salerosketa eteteko.

4. Israeli, potentzia okupatzaileari, eska diezaiola **suntsitutako palestinarren etxebizitza eta azpiegitura zibil guztiak berreraikitze**ko, bai eta milaka zibil palestinarri eragindako hilketa, zauri eta traumen **osasun-gastuak eta kalte-ordainak ordaintzeko ere**.

5. Nazioarteko Zigor Auzitegiko fiskalak adierazi duenez, «Israelek nahita eta sistematikoki kendu dizkie Gazako biztanleria zibilari gizakien biziraupenerako ezinbestekoak diren objektuak». Beraz, Nazioarteko



ARANTZAKO UDALA

Zigor Auzitegiari eta Nazioarteko Justizia Gorteari laguntza handiago ematea eskatzen dugu, Israelgo Gobernu eta Gazan 40.000 pertsona baino gehiago hil eta desagertu izanaren arduradun nagusiak auzipetzeko. Horieta gehienak emakumeak eta haurrak dira, Zisjordanian eta Jerusalem ekialdean ugaritu den indarkeria eta lurren eta etxebizitzan lapurreta ahaztu gabe. Nazioarteko Zigor Auzitegiak adierazi duenez, «Israelek nahita eta sistematikoki kendu dizkie Gazako biztanleria zibilari gizakien biziraupenerako ezinbestekoak diren objektuak». Ildo horretan, Espainiako estatuak Hegoafrikak eta Israelen aurkako kereila babesten duten beste estatu batzuek Nazioarteko Justizia Gortean egindako demandarekin bat egin izana ospatzen dugu, eta urrats horrekin batera genozidioa, okupazioa edo apartheid-a eragozteko eta inola ere ez laguntzeko politika aktiboak ere eskatzen ditugu.

6. **1967ko gerraren aurreko mugak dituen estatu palestinarra onartzeaz gain, herri palestinarren autodeterminazio-eskubidea onartzea**, palestinarrek beren mugak eta etorkizuneko antolaketa zehaztu ahal izan ditzaten NBEk babestutako bidezko negoziazio batean, eta **errefuxiatutako biztanle palestinarrei itzultzeko eskubidea** aitortzea, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 194., 242. eta 3236. ebazpenek zehazten duten bezala.

7. Espainiako enpresei eska diezaiela **Palestinako lurralde okupatuetatik datozen salgaien jatorria nahitaez adierazteari buruzko legeria betetzeko**.

8. **Europar Batasunaren eta Israelen arteko Elkarte Akordioaren aurka egin dezala**, lehentasuneko hitzarmen hori nabarmen ez betetzeagatik, Israelek ez baitu betetzen giza eskubideak eta printzipio demokratikoak errespetatzeko konpromisoa. Nazioarteko Justizia Gorteak eskatzen duen bezala eta Irlandaren eta Espainiaren kontsultaren ondoren Europar Batasunak informatu gabe jarraitzen duen bitartean, kautelazko neurriak edo preautelarrak atzerapenik gabe hartzea.

9. **Israelekin harremanak haustea**, nazioarteko legedia eta giza eskubideak sistematikoki urratzen dituelako. Israelek Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arloko nazioarteko legeak urratzen jarraitzen duen bitartean eta genozidio, apartheid eta okupazio ekintzei eusten dien bitartean mantendu beharko da harremanen haustura hori.

— Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arloko nazioarteko legeriarekin konprometitzen da. Hori dela eta, aplikatzekoa den araudiak ahalbidetzen duen neurrian, **ez du laguntza ekonomikorik emango, lokalen lagapenik, aitorpenik edo harrera publikorik egingo Israel eta sionismoa ordezkatzan duten pertsonen, elkarteek edo enpresek egindako edozein jarduera ekonomiko, kultural, kirol edo ludikori**, jarduera horiek Palestinaren aurkako apartheid, okupazio eta genozidioa gaitzesten badute edo jendaurrean adierazten ez badute.

— Araudi aplikagarriak ahalbidetzen duen neurrian, **bere eskumeneko kontratazio publikoko prozesuetan okupazioaren negoziorekin harreman ekonomikoak, babesletzak edo estrategikoak dituzten pertsonekin kontraturik ez egiteko konpromisoa hartzen du**.

— Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuko talde parlamentarioei eskatzen die azter ditzatela kontratazio publikoaren araudian aldaketak, **Giza Eskubideen arloan nazioarteko legezkotasuna babesteko klausula eraginkorragoak sartzeko**, Giza Eskubideen urraketa larrietan inplikaturako enprekin kontratuak egitea debekatzeko.



ARANTZAKO UDALA

— Ahal den neurrian, laguntza emango die **UNRWari eta Palestinako herriaren alde lan egiten duten giza eskubideen eta gizarte zibilaren beste erakunde batzuei**, eta lekua emango die, ahal denean, giza eskubideen defendatzaileei eta genozidioaren, apartheid-aren eta palestinar herriaren okupazioaren lekuko zuzenei.

7. OSOKO BILKURETARAKO DEIALDIEN MAIZTASUN ALDAKETA ONESPENA.

Alkateak adierazi du, hasiera batean osoko bilkuren maiztasuna aldatzeko proposatu nahi zela. Izan ere, Igor Ugalde Salazar zinegotziarentzako osoko bilkurak eta lana uztartzea zaila zen. Halaber, azkeneko momentuan honek jakinarazi du posible izanen zaiola osoko bilkuretara ohiko moduan etortzea.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Osoko bilkuren maiztasuna ohiko moduan mantentzea, hau da, hilabete bakoitzeko lehenengo ortziralean, arratsaldeko 16:30ean.

8. ALKATE EBAZPENAK..

2024ko 137tik 165era Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

9. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 17:30ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

2024.10.24

11:48:58

+02'00'

Saturnino Larralde Ibarrola

Ziurtatzen dut

IDAZKARIA,

Data: 2024.10.24

11:48:35 +02'00'

Nagore Madariaga Iriarte

